

EIDER MENDOZA

Tolosa, 2023ko maiatzaren 17an

Diskurtso orientagarria. Hizlariak mitinean zehar ematen duen hitzaldia izango da balio duen bakarra.

Discurso orientativo. El único discurso válido será el que finalmente pronuncie el orador u oradora en el transcurso del mitin.

Arratsalde on.

Nire lehen hitzak Orioko hilketa matxista gaitzesteko eta biktimaren, bere seme-alaben eta ingurukoen saminarekin bat egiteko erabili nahiko nituzke. Elkartasun guztia hildakoen familia eta gertukoei, eta Orioko herriari. Ez dago eskubiderik! Eta ez dugu onartzen eta ez dugu onartuko!

Krimen matxistek ez dute lekurik gure herrian. Eta erakunde, herritar eta eragileok elkarlanean jarraitu behar dugu emakumeon berdintasun, askatasun eta eskubide guztien alde lanean. Gure etorkizuneko herrian inolako indarkeriak ez duelako lekurik. Aski da! Aski da!

Emakumeok aske bizitzeko eskubidea dugu eta ez dugu onartuko atzerapauso bat bera ere!

Hauteskundeak

Gero eta gertuago ditugu maiatzaren 28ko hauteskundeak, eta azken egunetan elkarrizketak, debateak, mitinak... denetik egiten ari gara. Topaketa horietan, gehienbat, Gipuzkoa defendatzea tokatu izan zaigu. Seguruenik, Xarlesi Tolosa defendatzea, edo lehendakariari Euskadi defendatzea tokatuko zaion bezala. Ze hauteskundeak gerturatu ahala, batzuk tonua altxatzen joan dira. Baina mezuak betikoak dira: ze gaizki dagoen dena, ze gaizki dagoen Gipuzkoa.

Errealitatea

Eta noski arazoak egon badaudela, ez dut nik kontrakorik esango. Baina errealitatea oso bestelakoa da. Hala diote datu guztiek. Ze Gipuzkoak azken zortzi urtetan aurrera egin du. Asko gainera!

Iraganeko arazoetan katiatuta egotetik, etorkizunera begira egotera pasa da: Ekonomia lehiakor batekin. Industria indartsu batekin. Desberdintasun maila baxuekin. Eta komunitate sendo baten eskutik. Batzuk diotena edo nahi luketena baino hobeto gaude. Bi legealditan, erdira jaitsi da lurraldeko langabetu kopurua. Industrian, gaur, duela 8 urte baino 10.000 lagun gehiago daude lanean Eta gizarte kohesioan, Europako onenen artean gaude.

Dena ez da perfektua ez, baina Gipuzkoak, zorionez, oinarri sendoak ditu! Eta lorpen hauek guztiak EAJ-PNVren gidaritzapean egin dira. Gizartearekin eta herritarrekin elkarlanean. Herri honetan, eta alderdi honek, beti egin izan ohi duen bezala! Elkarlanean aurrera!

Arazoak

Esan bezala, dena ez dago ondo, ezta gutxiagorik ere. Jakitun gara horretaz. Arazoak, kezak, ziurgabetasunak... egon badaude, eta gehiago edo gutxiago, denoi eragiten digute. Erosketak egitean sentitzen dugun prezioen gorakada. Hilero hilero, milaka gipuzkoar pairatzen ari diren hipoteken garestitzea. Gure gazteek sentitzen duten etorkizunari buruzko ziurgabetasuna. Edo gizon eta emakumeen arteko desberdintasunek jarraitzen dute. Atzo jasan genuen honen adierazpenik krudelena. Gipuzkoak, Euskadik eta Europa osoak partekatzen ditugun arazoak dira.

Arazoak badaude, badakigu zein diren eta arazoei irtenbidea emateko lan egiten dugu egunero. Baina gauza bat argi izan: Euskadi ez da herri prekarioa! Gure herria bizirik dagoen eta bizitzeko aukerak eskaintzen dituen herri oparoa da! Kontuz beren buruari “photoshop” aplikatu eta maite dugun herriari “Instagrameko filtro katastrofistak” aplikatzen dizkietenekin! KONTUZ! Ezagutzen ditugu: ez dira hain politak, eta batez ere, Euskadi ez da hain iluna!

Besteak

Eta, bitartean, zertan dabilta ba besteak? Batzuk, planfletoak banatzen. Besteak, Madrilen edo Murtzian entzuten dituztenak hemen errepikatzen, gure debateak espainolizatzen. Hola erantzungo al diete Osakidetzak izan ditzaken erronkei? Hola konponduko al da bereziki Tolosaldean sufritzen ari garen RENFEko arazoa? Etxekalte, batzuk eta besteak!

Kritikaren eta planfletoen profesionalak diren horiek, noiz ikusi dituzue konponbidean? Laguntzen? Noiz ikusi dituzue eraikitzen, proposatzen? Noiz arazoren bati irtenbidea ematen? Noiz ikusi dituzue baiezkoan? Baina nora eraman behar dute hauek Gipuzkoa?

Iraganean ikusi genuen nora: soluziorik gabeko eztabaidetara! Geldialdira!

Gurea

Guk ere ez genuen dena ondo egingo, noski ekibokatu garela. Baina Eusko Alderdi Jeltzalea beti egon da baiezkoan. Arazoak identifikatu, aurre egin eta konponbideak bilatzea da gurea. Eusko Alderdi Jeltzalea beti egon da herri honen eraikuntzan, hori izan da gure jarrera. Beti umil, eta beti apal, baina beti lanean eta serio. Badakigu zer nahi dugun, eta nola egin hori lortzeko.

Norabidea argi! Proiektua, eredia eta konfiantza ditugu Gipuzkoarentzat. Ekonomia indartsua eraikitzeko bide orria. Babes sozialeko sistema sostengatzen jarraitzeko estrategia. Errealitate berriei erantzuteko egitasmoa. Euskararen erabilera elkarlanean indartzeko proposamenak. Eta 350 neurri transformatzaileko programa sendoa. Hemen egina! Ez Murtzian edo Malasañan, hemen! Euskadin! Bizi garen herrian!

Korteak

Maiatzaren 28an, beraz, bi aukera ditugu: Programarik gabe eta photoshop-arekin aurkezten diren alderdiak! Edota Eusko Alderdi Jeltzalea, filtrorik gabe, baina programa sendoarekin eta denon ongizatea helburu duena! Haien katastrofismoren aurrean, ilusioa, indarra eta kemena nahi ditugu Gipuzkoarentzat! Eta konfiantza, arazoei aurre egiteko. Izan pandemia, inflazioa, etxebizitza, osasun zerbitzua edo funtzionatzen ez duen trena. Dena delakoa! Aurrekoek ere gainditu zituzten halakoak, konpondu zituzten okerragoak, eta guk ere egingo dugu! Herri honetan beti egin izan den bezala, Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik!

Por tanto, el próximo 28 de mayo tenemos dos opciones: Los partidos que se presentan sin programa, y con mucho Photoshop. O el Partido Nacionalista Vasco, que se presenta sin filtros pero con un programa fuerte para seguir avanzando en el bienestar de las personas.

Frente al catastrofismo, queremos ilusión, fuerza y coraje para Gipuzkoa. Y confianza, para hacer frente a los problemas. Sea una pandemia, sea la inflación, la vivienda, el servicio de salud o un tren que no funciona. ¡Sea lo que sea! ¡Nuestras antecesoras salieron de peores, y así lo haremos nosotras también! ¡Como siempre se ha hecho en este pueblo, de la mano del Partido Nacionalista Vasco!

Abstentzioa

Maiatzaren 28an, beraz, ezinbestekoa da gipuzkoar ororen mobilizazioa. Jokoa dagoena ez delako edozer gauza: Gipuzkoak dituen zailtasun horiei nola egingo dien aurre erabakitzea.

Eta gauzak argi: planfletoeekin, edota La Sextan entzuten direnak errepikatuta, arazoak ez dira konponduko! Baina are gutxiago, etxean geratuta! Abstentzioak gizarte osoa kaltetzen du, erakunde ahulak eta desorekatuak uzten ditu. Begiratu nola dauden, demokrazia ahula den munduko lekuetan. Datozen bi asteetan, beraz, gure onena eman behar dugu kontzientziak astintzeko eta herritarrak mobilizatzeko.

Eredu sozioekonomikoa

Gipuzkoan, eta Euskadin, denon artean, baina Eusko Alderdi Jeltzalearen gidaritzapean, eredu sozioekonomiko propioa eraiki dugu. Ekonomia lehiakorra eta babes sozialeko sistema sendoan jarri izan dugu arreta, gure ahaleginaren onena. Txanpon beraren bi aurpegiak dira! Gipuzkoa Eredua, herri honen eredu sozioekonomikoa hamarkadetako lanaren fruitua da. Eta beste batzuk barrikadetan zeuden bitartean, gu eraikuntzan egon gara.

Eraikuntza demokratikoan! Etika eta politika uztarri berean lotuta, konbikzio osoz. Eta orain ere ETArekin katiatuta dabilzan bitartean, guk programa landua eta zehatza jarri dugu mahai-gainean. Hamarkadaz hamarkada, etxeari eutsi diogu! Eta orain ere horretan jarraituko dugu; etxea zaintzen eta sendotzen!

Gure belaunaldia

Gure aurrekoek lan handia egin dute eta gauden tokiraino ekarri gaituzte. Eta orain guri dagokigu ardura hori hartzea. Gure belaunaldiari dagokio datozen urteetan Gipuzkoa bultzatzen jarraitzeko erronkari aurre egitea. Eta ilusioz eta indarrez hartzen dugun konpromisoa da. Etsipenaren aurrean, ilusioa. Arazoen aurrean, soluzioak Akatsen aurrean, zuzenketak. Ziurgabetasunaren aurrean, ziurtasunak. Ezkortasunaren aurrean, jarrera eraikitzailea. Katastrofismoaren aurrean, konfiantza. Ezer zehazten ez dutenen aurrean, norabide argia. Madrilera begira bizi direnen aurrean, Tolosa, Gipuzkoa eta Euskadi! Show-aren aurrean, herrigintza arduratsua.

Gure estilora, lana, lana eta lana! Maiatzaren 28an, bozkatzera eta irabaztera! Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik! Sendo, eta konfiantzarekin! Aurrera, batera!